



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

76. INFORMAZIO BULETINA

> 2013ko Martxo



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Martxo

NABARMENDU BEHARREKOA

> Euskadi, 31. Europako eskualdea da BPGd per capitari dagokionez

2010. Urteko Eurostaten datuek Euskadi Europako 270 eskualdeen artean 31. lekuan kokatzen dute BPGd per capitari dagokionez; 32.200 euro (ppc-n) eta 132ko indizea UE-27ren batez bestekoaren gainean (100eko indizea).

Europar Batasuneko aberastasun per capita handieneko hamar eskualdeen zerrendako lehena Inner London da; Britainia Handian dago eta % 328ko batez besteko komunitarioa du; hauek datoz ondoren: Luxemburgoko Dukerria (% 266), Brusela (% 223), Hamburgo (Alemania, % 203) eta Île de France (Frantzia) eta Groningen (Herbehereak), biak % 180rekin.

Komunitateko batez bestekoaren % 125 gainditzen duten 41 eskualdeen artean zortzi Alemanian daude, bost Herbehereetan eta Austrian, lau Belgikan eta hiru Espainian (Euskadi, Madril eta Nafarroa), Italia eta Erresuma Batua.

Beste muturrean, EBko BPGd per capita baxuena duten lau eskualdeak Bulgarian eta Errumanian daude, komunitateko batez bestekoaren % 30 baino ehuneko baxuagoarekin.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/1-21032013-AP/EN/1-21032013-AP-EN.PDF

> Egiturazko Funtsen 2007-2013 aldia ixteko arauak

2007-2013 aldiaren Egitura Funtsetatik (FEDER eta FSE) eta Kohesio Funtsetik laguntza jasotzeko hartutako programa eragileak ixteko prozesuan aplikatu beharreko arauak onartu ditu Europako Batzordeak.

Ondorioz, onartutako arauen helburua itxiera-prozesua erraztea da. Horretarako, oraindik onartu gabe dauden Europar Batasuneko aurrekontu mailako konpromisoen finantza-likidaziorako itxiera-ekitaldiak izan behar duen testuinguru metodologikoa eskaini behar da azken saldoa ordainduta, behar ez bezala ordaindutako zenbatekoak berreskuratuta eta amaierako saldo oro askatuta.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/guidelines/closure_2007_2013/guidelines_closure_20072013_es.pdf



> Europako Parlamentuak baztertu egin du 2014-2020 Hainbat Urterako Finantza Esparrua

Europako Parlamentuak martxoaren 13an baztertu zituen Hainbat Urterako Finantza Esparruari buruzko Europako Kontseiluaren ondorioak; uste da ordainketa-kreditu urriek arriskuan jartzen dutela Europako politiken eraginkortasuna.

Eta nabarmentzen du MFPk, 2014-2020 aldirako 2020 Europako Estrategiaren exekuzioaren arrakasta bermatu behar duela eta EBri krisitik errekuperatzeko eta indartsu sentitzeko beharrezko baliabideak eman behar dizkiola; hauek nabarmentzen ditu: berrikuntzan, ikerketan eta garapenean, azpiegituretan eta gazterian inbertsioak nabarmen igotzearen garrantzia, klima-aldaketari eta energiari dagokionez EBren helburuak betetzea, hezkuntza mailak hobetzea eta txertaketa soziala sustatzea, betiere, nazioarteko konpromisoak errespetatuta.

Informazio gehiago:

<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P7-TA-2013-0078+0+DOC+XML+V0//ES&language=ES>



KOHESIO-POLITIKA

> **FEDER bidez finantzatutako 50 hiri-irtenbide bikain**

FEDERen finantzazioa jaso duten 50 proiektu biltzen dituen azterketa. Aukeratutako hirietarako informazio-paketea eskaintzen du bertako proiektuen eta emaitzen informazio zehatza jasota.

Azterketak hiriko hainbat jardunbide egoki biltzen ditu eta 2007-13 aldirako FEDERen inbertsioarekin hiriek tokiko hiriko politikak martxan nola jarri dituzten agertu du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/50_projects/urban_dev_erdf50.pdf

> **Berrikuntza sozialerako gida**

Europar Batasuneko REGIO eta EMPL Zuzendaritza Nagusiek berrikuntza sozialerako gida argitaratu dute; bertan, aurreikuspen berritzaileen ekarpena egiten duten hainbat ekimen deskribatzen dira helburu sozialekin, ingurumenekoekin, eta enplegua eta bizitza-kalitatearen hobekuntza helburu dutenekin.

Gai horiek lantzen dituen proiektu kofinanzatuak adibideak eskaintzen ditu gidak eta 2020 Europako Estrategiaren testuinguruan kokatzen ditu; gainera, berrikuntza soziala sustatu eta ahalbidetzeko, eta beste politiketan helburu sozialak xertatzeko moduei buruz eskualdeko erakunde publikoentzako iradokizun praktikoak eskaintzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/presenta/social_innovation/social_innovation_2013.pdf



> 200 milioi euro energia- eta garraio-proiektuetan inbertsioak bultzatzeko

Europako Batzardeak iragarri du 200 milioi euro esleitu dituela Auzo Politikarako Inbertsio Funtsetarako, betiere, Batasuneko kide diren herrialdeetan eta inguruko herrialdeetan inbertsio berriak sustatzeko Europar Batasunaren garapen-bankuen bidez.

Aurrez ikusitako inbertsioak energia- eta garraio-proiektuetan zentratuko dira, EBko eta inguruko herrialdeen azpiegituren artean interkonexioak ezarriz.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/europeaid/where/neighbourhood/regional-cooperation/irc/investment_en.htm



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Martxoan

EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Batzordeak ETE-entzako 10 arau zailenak identifikatu ditu eta horien sinplifikazioa proposatu du

Europar Batzordeak araurik zailenen laneko dokumentu bat argitaratu du, Europako ETE-*ei egindako inkesta publiko batetik ("TOP10 public consultation")* abiatuta.

Helburuak, alde batetik, ETE-*ei dagokienez Europako Batzordearen araudiaren analisisian eta hazkunderan eta enpleguan duen eraginean oinarritu da; bestetik, jardura sinplifikatzeko lehenetsitako ekintzetan oinarritzen da.*

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-13-168_en.htm

http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-13-168_en.pdf

http://ec.europa.eu/governance/better_regulation/documents/1_EN_autre_document_travail_service_part1_v3.pdf

> Sormen-industria tokiko eta eskualdeko garapenean

Europar Batasunerako Euskadiko Ordezkaritzaren koordinaziopean, martxoaren 7an lan-jardunaldi bat ospatu da 2014-2020 Creative Europe Europako Programarekin batera taldekatuko diren etorkizuneko ekintzak eta finantza-lerroetan kultura, sormena eta berrikuntza defendatzeko helburuarekin.

Topaketak alor honetako tokiko eta eskualdeko agintarien lanean eragiteko ere balio izan du, eta eskualde parte-hartzaileetan sormen-industiaren egitekoari buruzko esperientzia zehatzak eta jardunbide egokien adibideak erakutsi dituzte bertan.

Informazio gehiago:

<http://cor.europa.eu/es/regions/spain/highlights/Pages/cultura-y-creatividad-sectores-de-crecimiento-regional.aspx>

http://ec.europa.eu/culture/creative-europe/index_en.htm



> Europar Batasunean berrikuntzaren adierazlea hobetzen du, nahiz eta herrialdeen arteko arraila handitu

Krisi ekonomikoan egon arren, Europar Batasuneko emaitzek, 2012. urteari dagokion Berrikuntzaren Aldeko Batasuna adierazlearen arabera, herrialde kideen multzoan berrikuntzaren alorrean hobekuntza gertatu dela erakusten dute. Hala eta guztiz ere, herrialdeen arteko desberdintasunak ere mailaz maila ugaritzen dira.

Herrialdeen rankinga aurreko urtekoen antzera mantentzen da, Suedia buruan dela, eta jarraian Alemania, Danimarka eta Finlandia daude. Estonia, Lituania eta Letonia dira aurreko urtetik gehien hobetu diren herrialdeak. Espainia (16. postuan 27 herrialdeen artean) herrialde "berritzaile moderatu" artean dago sailkatuta.

Adierazleko osagaien arabera, 2012an Batasunean berrikuntzan hazkunde-motorrek ETEak eta berrikuntzen merkaturatzea barne hartzen dute, ikerketa-sistema bikainekin batera. Hala eta guztiz ere, 2008 eta 2012 artean enpresen inbertsioa eta arrisku-kapitala murrizteak modu negatiboan eragin du berrikuntzaren emaitzetan.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/enterprise/policies/innovation/files/ius-2013_en.pdf

> Liburu Berdea: 2030eko Klima eta Energiaren estrategia berrirako testuingurua

Europako Batzordeak Klima eta Energiaren estrategia berriaren definizioa hasi du Liburu Berdearen argitalpenarekin, baita European karbonoa jasotzearen eta biltegitratzearen etorkizunari buruzko kontsultakomunikazioa ere.

2020rako ezarritako energia berriztagarriaren helburuen lorpenean Estatu kideek izan duten aurrerapen moduari buruzko txosten bat ere onartu du Batzordeak, baita Batasunean kontsumitutako bioerregaien eta biolikidoen iraunkortasunari buruzko hainbat txosten ere.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0169:FIN:ES:PDF>

http://ec.europa.eu/energy/green_paper_2030_en.htm

http://ec.europa.eu/energy/coal/ccs_en.htm

http://ec.europa.eu/energy/renewables/reports/reports_en.htm



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Martxo

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Europako Kontseiluaren Ondorioak

Martxoaren 14 eta 15eko Europako Kontseiluaren ondorioetan agerian geratzen da ezinbestekoa izango dela finantza arloan saneatzearekin eta finantza-egonkortasunera itzultzearekin batera igoera iraunkorra, enplegua eta lehiakortasuna sustatzera bideratutako egiturazko erreformak izatea, baita desoreka makroekonomikoen zuzenketak ere.

Gazteen langabeziaren kontra, merkatu bakarraren sakontzean eta enpresentzako arauzko sinplifikazioan jarduteko beharra nabarmendu behar da.

Informazio gehiago:

http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/136159.pdf

> Kopuru txikiko mugaz gaindiko auzietako prozedurak hobetzeko kontsulta publikoa

Kopuru txikiko eskaerak bizkortzeko Europako prozedurak 2.000 euro baino baxuagoko zenbatekoei dagozkien mugaz gaindiko auziak konpontzeko modu erraza eta merkea eskaintzen du, prozedura judicial konplexuekin hasi beharrik gabe.


Ildo horretatik, Europako Batzordeak kopuru txikiko mugaz gaindiko auziekin lotuta, kontsumitzaileen eta enpresa txikien justiziarako sarbidea hobetzeko modalitate eta tresna berrien gaineko iritziak bildu nahi dituen kontsulta publikoa jarri du martxan.

Beraz, Europar Batzordearen azken helburua mugaz gaindiko erosketetan konfiantza hobetzea da; horretarako, hainbat tresna erabiliko dira, esate baterako, zenbateko txikiko eskaerak bizkortzeko Europako prozedura, horrela, kontsumitzaileei eta enpresei lagunduko zaie Europako merkatu bakarra guztiz aprobetxa dezaten.

Informazio gehiago:

https://e-justice.europa.eu/content_small_claims-42-es.do

http://ec.europa.eu/civiljustice/simplif_accelerat_procedures/simplif_accelerat_procedures_gen_es.htm



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



> **BEZaren Europako aitorten estandarraren bideragarritasunaren eta eraginaren gaineko azterketa**

Azterketak bi zati ditu; lehenengoa Europar Batasunaren BEZ estandar komunaren aitortzean txertatu beharreko informazioaren eskakizunei dagokienez proposatuta arauen definizioa da; BEZaren aitortzea aurkezteko ikuspegi komuna eta BEZaren aitortzean akatsak zuzentzeko ikuspegi komuna.

Txostenaren bigarren zatiak aitorten estandarraren aplikazio efektiboak izan dezakeen inpaktu ekonomikoaren ebaluazioa du. Inpaktu sozioekonomikoa enpresen ikuspegitik eta kide diren herrialdeen agintaritzak fiskaletatik egiten da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/taxation_customs/resources/documents/common/publications/studies/standard_vat_return_study.zip

> **Bizitza duina denentzat. Txirotasunarekin amaitu eta munduari etorkizun iraunkorra ematea**

Txirotasunaren inguruan Europar Batasunaren eta osatzen duten herrialdeen ikuspegi komuna proposatzen duen Europako Batzordearen jakinarazpena.

Dokumentuak erronka eta aukera orokor nagusiak identifikatzen ditu eta txirotasunari aurre egiteko agenda orokorraren arrakasta ebaluatzen du. ODMen esperientziatik eta Río+20tik eratorritako lanetatik etorkizunean esparrua lortzeko atera daitezkeen erronkak eta elementuak deskribatzen dira, batez ere, garapen iraunkorreko helburuak (ODS).

Aipamen horien oinarriaren gainean, Jakinarazpenak printzipio jakin batzuk proposatzen ditu post-2015 testuinguru orokorrerako. Erantzun koherentea eskaintzeaz gain, txirotasunari aurre egitea eta hiru dimentsioetan garapen iraunkorra helburu duten erronka unibertsalak eskainiko ditu; horrela, 2030erako, guztientzako bizitza duina bermatuko da.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0092:FIN:ES:PDF>